

Memoria
2021-2022
Donostiako Emakumeen Etxea



Donostiako
Emakumeen
Etxea

Memoria
2021-2022

2021/2022 ikasturteko memoria.
Donostiako Emakumeen Etxea.

Edizioa, maketazioa eta diseinua: Kalaka Koop. Elk. Txikia

Argazkiak: Itziar Bastarrika

Inpresioa: Leitzaran Grafikak

Donostia 2022



Aurkibidea

6 Aurkezpena

7 Emakumeen etxea

8 Organigrama

9 Elkarrizketa

11 Datu orokorrak

13 Erabiltzaileei buruzko datuak

16 Aurrekontua

17 Hobekuntzak

18 Zerbitzuak

23 Elkarguneak

27 Matrika guneak

35 Formakuntzarako blokeak

42 Ekintzak



Aurkezpena

Emakumeen Etxea

Gogor ekin genion ikasturteari. Izan ere, toki handiagoa behar du Etxeak azkar, eta Donostiako Emakumeen Etxea elkarteak ez da geldirik egon. Ekin egin dio. Aldarrikapenak, bilera trinkoak eta une gogoangarriak izan ditugu.

Eta hor segitzen dugu, ekin eta ekin, etsi gabe.

Aldaketa urtea ere izan da. Pandemiak atzera egin duenean, berriz ere abiadura hartu du Etxeak. Askoz bazkide gehiago gara orain, jarduera gehiago programatzen dira, toki guztiak erabiltzen dira eta edukiera ja ez da lehen adina oztopo. Etxeak ez du erreferentzialtasunik galdu, eta presentzialtasuna etorri denean, lehen baino biziago dago berriz ere, eta inoiz baino biziago izateko bidean doa.

Baina aldaketarik garrantzitsuena, zalantzarik gabe, Silvana Ostiza erretiratzea izan da, Emakumeen Etxearen goizetako koordinatzailea; hutsune handia utzi du 9 urte erabat inplikaturik aritu ondoren. **Asko akordatuko gara zurekin, Silvana!** Baina, etorri ere egin da jende berria eta ziur gaude gure Etxean sortzen den ilusio hori sustatzen jarraituko duela.



COMISION DE

AJEDREZ

- Emakumezko xake jokalariai sortzea eta bultzatzea du helburu talde honek. Trebatzeko nahiz ongi pasatzeko elkartzen dira.

- El grupo tiene como objetivo la creación y el fomento de mujeres jugadoras de ajedrez. Se reúnen en La Casa para aprender y pasárselo bien.

BATZORDEA

BATUKADA

- Espazio publikoa hartzeko emakume banda
- Ahalmen sortzaileak garatzea
- Banaka eta kolektibo bezala ahalduntzea

- Banda de mujeres para ocupar el espacio público
- Desarrollo de capacidad creativa
- Empoderamiento individual y colectivo

BATZORDEA

BLOKEA

- Donostiako Emakumeen Etxeko Blokea sortu delaldi feministetan Etxea bezala atera gaitzen
- Bloke bat sortu salaketa feminista desberdinak antolatu eta proposatu ahal izateko, eta Etxea bezala kaleak hartu ditzagun.

- Generar un bloque de la Casa de las Mujeres para salir como Casa a las diferentes convocatorias feministas
- Generar un bloque de organización y propuesta de diferentes iniciativas de denuncia feminista para tomar las calles como Casa de las Mujeres de Donostia

BATZORDEA

ARTIKULAZIOA

- Tailerren proposamenak
- Aurrekontuaren banaketa
- Elkartearen urteroko ebaluazioa

- Propuesta de talleres
- Distribución del presupuesto
- Evaluación anual de la asociación

EMAKUMEEN ETXEA // CASA DE LAS MUJERES

BATZORDEA

DANBORRADA

- Donostiako jaietan emakumeen partehartzea sendotu
- Danborrada feminista sortu eta mantendu
- San Sebastián egunean espazio publikoa feminismoz okupatu
- Fortalecer la participación de las mujeres en las fiestas de la ciudad
- Crear y mantener una tamborrada feminista
- Ocupar de feminismo las calles el día de San Sebastián

BATZORDEA

TEKNOLOGIA

- Emakumeen alfabetatze digitala
- Teknologiaren erabilera kritikoa sustatzea
- Mugimendu feministari tresna digitalak eskaintzea

- Alfabetización digital de mujeres
- Fomentar un uso crítico de la tecnología
- Ofrecer herramientas digitales al Movimiento Feminista

COMISION DE

ANTIAGRESIONES

- Indarkeria matxistaren inguruko hausnarketa eta ekintza feminista
- Administrazioa jotzen duten emakumeen egoera hobetzea

- Reflexión y acción en torno a la violencia machista
- Mejorar la situación de las mujeres que acuden a la administración

BATZORDEA

ZINEA

- Etxabaida eta hausnarketa feminista sustatu
- Zine feminista jaialdia bultzatu
- Emakume zinegileak ikusarazi

- Generar debate y reflexión feminista
- Impulsar festival de cine feminista
- Visibilizar mujeres cineastas

KOGESTIOA // COGESTIÓN

KUDEAKETA KONPARTITUA // GESTIÓN COMPARTIDA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Berdintasuna
Igualdad



LOLO GIL
LOLO GIL
LOLO GIL

FINANZATZEN DU // FINANCIA

LEGE BABESA // SOPORTE LEGAL

EMAKUMEEN MUGIMENDUARI LAGUNTZA
APOYO AL MOVIMIENTO DE MUJERES

BAZKIDEEN INDARRA
FUERZA DE LAS SOCIAS

PROGRAMAZIOA ETA KUDEAKETA
PROGRAMACIÓN Y GESTIÓN

MUGIMENDU FEMINISTA HAUNDITU ETA INDARTU
FORTALECER Y AUMENTAR MOVIMIENTO FEMINISTA

Elkarriketa

Artikulazio Batzordea:

Maite Santamaría, Begoña Gorospe, Maitane Urbieta, Carmen Diez eta June González.

Noiztik dago martxan Artikulazio Batzordea?

Artikulazio Batzordearen ernamuina 2013an sortu zen Formakuntza Batzordea izan zen. Urte batzuk geroago, 2015ean, Formakuntza Batzordea handitu eta Artikulazio Batzordea sortu genuen. 7 urte daramatzagu Artikulazio Batzorde gisa lanean.

Zergatik ikusi zenuten sortzeko beharra?

Barrurantz birpentsatzeko eta beste era batera antolatzeko premia zegoen. Ez da batzorde ikusgarria, baina Etxean egiten den lanaren oinarria den sarea da Artikulazio Batzordea.

Zein da zuen lan egiteko modua, zer ematen diozue Etxeari?

2019an urte osoa eman genuen ibilbide-orri bat egiten. Ibilbide-orria lana berrikusteko eta Etxearen antolaketa birpentsatzeko plan bat da. Baina, pandemia iritsi zen, eta bi urte hauetan antolakuntza aldatu eta egoerara egokitu behar izan dugu.

Hilean behin biltzen gara gutxienez. Batzordearen helburuak dira, alde batetik, eskola feministaren diseinua kudeatzea. Hau da, eskainiko diren prestakuntzak pentsatu, hezitzaileak bilatu eta programazioa sortzen da. Eskola feminista etengabe birpentsatzen ari gara prestakuntza berriak, desberdinak, gazteak ere erakar ditzaketenak eta abar eskaintzeko.





Lan hori urtean bitan egiten da, udazkeneko eta udaberriko programak ateratzen direnean. Era berean, eskola feministak eskaintzen dituen prestakuntzak amaitzen direnean, erabiltzaileen balorazioak jasotzen dira eta parte-hartzea eta ikuspegia baloratzen dira.

Bestalde, batzordeak etxearen helburuak finkatzen ditu eta batzordeen arteko kohesioa lantzen du. Une honetan, Etxea osatzen duten batzordeekin biltzen ari gara, dinamika interaktiboagoak sortzeko asmoz.

Azken urte honetan asko azpimarratu dugu Etxe handiago baten beharra, eta horrek lan handia ematen digu antolaketari dagokionez, baina beharrezkoa da aldarrikatzen jarraitzea. Laburbilduz, batzorde honetatik egiten duguna da pentsatu, antolatu eta programatu Elkartea buru duen Etxeko Eskola Feministak egiten duena, eta Elkartearen eta bere lan-batzordeen ikuspegi orokorra landu. Horretarako, 2019an zehaztu genuen ibilbide-orria dugu, ezartzen ari garen helburuak lortzeko estrategia bat definitzen laguntzen diguna.

Zein dira Artikulazio Batzordearen lana egiteko oztopo handienak? Eta egunerokoan jasotzen dituzuen abantailak edo laguntzak?

Topatzen dugun oztoporik handiena jendearen indarra eta denbora da. Gauza gehiago egin nahi genituzke, baina ez dugu ez denborarik ez energiarik askotan. Militantzia aldatu egin da, eta egokitu egin behar da, berrasmatu.

Etxeko lan-dinamikaren joeraren aurka borrokatu behar izatea da beste oztopo nagusietako bat. Dinamika batzuek funtzionatzen dute, baina ikusten dugu luzaroan horrela jarraitzen badute, erre egingo garela. Horren aurretik, aldaketa batzuk egitea proposatzen dugu, denbora gehiagoz funtziona dezaten, baina oso zaila da aldaketa horiek egitea.

Egunerokoan jasotzen ditugun abantaila edo laguntzei dagokienez, gure lana Koordinakundearen aldetik baloratzen dela sentitzen dugu. Gainera, urteak daramatzagu elkarrekin lanean eta harreman ona dugu.

Datu orokorrak

Bisita kopurua: **18.521**

2021eko irailetik 2022ko uztaile arte.

Hileroko bataz bestekoa: **1.684**

Eguneko: **85**

Elkarteko bazkide kopurua: **1.804**

Kogestio bilerak: **6**

Etxean egiten diren ekintzen berri eman da:

- Donostiako Gizarte Zerbitzuak auzoetan dituzten bulegoetan, GLUZ (Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua) eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arreta Zerbitzuan, azken hauekin bereziki elkarlan eta harreman estua dugu.
- Donostiako Udaleko Kultur Etxeetan eta Gaztelekuetan.
- Gaztetxeetan.
- Martuteneko kartzelan.
- Donostiako Anbulatorioetan eta Osasun Mentala, Osakidetza.
- Gipuzkoako Itxaropen telefonoa.
- Gurutze Gorria Gipuzkoa.
- Caritas.
- Gizarte bazterketa eremuan, adin txikikoekin, emakumeekin, etab. lan egiten duten erakundeetan.
- Emakumeen Etxea Elkarteko bazkideen artean.
- Euskara Sailean.
- Tabakalera.
- Hainbat Udaletako Gizarte Zerbitzu, Kultur eta Berdintasun sailetan.
- Hainbat Elkarte desberdin.
- Ibiltzen (Agifes).
- Donostiako Udaleko Musika eta Dantza Eskola.

ESPAZIOEN ERABILERA

Emakumeen Etxea Elkarteko batzorde eta proiektuak:

- Demoleedoras Literatura Batzordea.
- Emakumeen Etxea elkarteko barne bilerak.
- Batukada Batzordea.
- “La antiagresiones” Batzordea.
- Zine Batzordea.
- Artikulazio Batzordea.
- Emakumeen Etxeko BLOKEA mobilizazioetarako.
- Emakumeen Etxea Elkarteko koordinadora.
- Akuerpadoras Batzordea
- Danborrada Feminista.

Emakume taldeak eta talde feministak:

- Plazandreok.
- Zaintza talde motorea.
- Emakumeen Etxea Elkartea.
- Bilgune Feminista.
- Emakumeak eta Hiria Foroa.
- Bidez bide.
- Donostiako Asanblada Feminista.
- Erroak Sartu Emakumeen Taldea.
- Zaintzak Erdi Gunera Euskal Herriko Koordinadora Feminista.
- ASADE.
- Lilatoia.

- Koordinazio feminista talde antiabortistei aurre egiteko.
- Donostiako Asanblada Transbollomarika.

Bisita gidatuak:

- “Gureak landuz” programa.
- Biktimologiaren Munduko Elkartearen 17. Nazioarteko Sinposioko partaideak.

Donostiako Udalak antolatutako saio eta formazioak:

- Berdintasun politiken kudeaketarekin lotutako formakuntza udaleko langileei zuzenduta.
- Indarkeria matxistaren unitateko udaltzainei zuzendutako formazio berezia.
- Indarkeria matxistaren biktimen artatzea hobetzeko jardunaldia: “biktimak; amak eta seme-alabak”.
- Puntu Kritikoen Maparen proiektuaren bilerak.
- Bilera Gasteizko Berdintasun Zerbitzuarekin, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei buruz Etxeko esperientzia azaltzeko.
- Getxoko berdintasun-teknikariarekin harremana, etxea abian jartzean izandako esperientzia helarazteko.

Beste erakunde publikoek antolatutako saio eta formazioak:

- Sendian.
- G.F.A. Elkarteei zuzendutako dirulaguntzei buruzko aholkularitza.
- G.F.A. Gipuzkoako Berdintasun teknikarien lan guneko bilerak.
- G.F.A. Berdinbidean bilerak.

Bestelako ekimenak:

- Lumaltik.
- Erroak sartu.
- Loreak (Txiki Txoko).
- Mugarik Gabeko Ekonomistak.
- Lotura Giza Garapena.
- Bira Zapatista.
- Mugarik Gabeko Emigratuak.
- Bakerako Lankidetzeta Batzarra.
- Agaldeprise.
- Mara Mara (Kontxi López).


Erabiltzaileei buruzko datuak

2021-2022 ikasturtean 19 tailer eta 17 ahalduztze-talde eskaini ditugu, eta inskripzioak, guztira, 848 izan dira. Zerbitzuei dagokienez, uztaiera arte, 959 hitzordu erregistratu dira. Tailerretan eta ahalduztze-taldeetan parte hartu duten emakumeetatik 538ren datu osoak ditugu, eta zerbitzuetara jo duten emakumeetatik 482renak.

Aurreko memorieta bezala, hala zerbitzuen erabiltzaileen nola ikastaroetan (hor sartzen dira tailerrak eta ahalduztze-taldeak) parte hartu duten emakumeen datu orokorrak aztertuko ditugu. Batzuen eta besteen artean alde esanguratsurik bada, horren berri ere emango dugu. Zerbitzuak erabiltzeaz gain ikastaroetan ere parte hartu duten emakumeen ehunekoa oraindik txikia da (% 4,51); hala ere, igoera txiki bat izan da aurreko ikasturteekin alderatuta.

Lehenik eta behin, erabiltzaileen bizilekua aztertuko dugu. Ikus daitekeenez, hautsi egin da azken urteetako joera: Gipuzkoako gainerako herrietako erabiltzaileen ehunekoa igo egin da, jaitxi beharrean; hain zuzen ere, aurreko ikasturtean % 20,13 zen, eta oraingoan % 28,38 izan da.


Erabiltzaileen bizilekua:



* Donostiako datuak kenduta

Adin-tarteak aurreko ikasturtekoen antzekoak dira: 26-45 urte bitarteko 3 adin-tarteak dira nagusi, % 21 inguru horietako bakoitzean. Deigarria da 0-15 adin-tartean izan den igoera: % 0,12tik % 2,20ra igo da. Gainerako tarteek behera egin dute, aurreko urteetako joerari jarraituz. 66 eta 75 urte arteko tarteak, berriaz, mantendu egin da.

Erabiltzaileen adina:



Adinaren aldagaian ere aldeak daude zerbitzuen erabiltzaileen eta ikastaro eta tailerretako parte-hartzaileen artean. Zerbitzuen erabiltzaileen artean, nahiko berdinduta daude 25etik 55era bitarteko

tarteak (% 23 inguruan), eta jaitisiera nabarmena gertatu da hurrengo tartean (% 10,76). Aldiz, aldakuntza hori alderantzizkoa da ikastaro eta tailerretan. 26tik 55era bitarteko tarteak berdinduta daude % 18aren inguruan, eta 56tik 65erako tarteetan % 23,50era igo da.


Ikastaro eta tailerretako parte-hartzaileen batez besteko adina zertxobait igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta: 48 urte inguru. Zerbitzuen erabiltzaileen batez bestekoa mantendu egin da eta 45,41era iritsi da. Batzuen eta besteen arteko aldea apur bat handitu da aurreko urtearekin alderatuta.

Egindako ikasketei dagokienez, unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak dira nagusi oraindik ere; hala ere, ehuneko hori 5 puntu jaitsi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen ehunekoak gora egin du, eta gainerakoak, berriz, antzera mantendu dira.


Oraindik ere alde nabarmenak daude zerbitzuen erabiltzaileen eta ikastaroetan parte hartzen duten emakumeen artean. Oraindik ere ikastaroetan parte hartu duten emakumeen ia bi herenek (% 65,14) dituzte unibertsitate-ikasketak, eta zerbitzuetara jo duten emakumeen artean, berriz, % 32,47k ditu unibertsitate-ikasketak. Aipatzekoa da arrakala hori pixka bat handitu dela, aurreko ikasturtearekin alderatuta. Izan ere, zerbitzuei dagokienez, bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen ehunekoak gora egin du unibertsitate-ikasketak dituztenekin alderatuta; horien ehunekoa jaitsi egin da, eta bigarren postuan kokatu da.

Emakumezko erabiltzaileen lan-egoerari dagokionez, lehen postuan finkatu da besteren kontura lanaldi osoan lan egiten dutenen ehunekoa, % 27,59tik % 30,69ra igaro baita. Aldiz, behera egin dute langabezian dauden emakumeen, erretiratuen eta ikasleen ehunekoak, eta gainerakoak mantendu egin dira.

Erabiltzaileen ikasketak:



Erabiltzaileen lan egoera:




Aurreko ikasturteetan bezala, emakume

gehienek ikastaro batean (% 71,56) edo bitan (% 15,24) parte hartu dute; hala ere, lehenengoen ehunekoa igo egin da aurreko ikasturtearekin alderatuta, eta bigarrenena jaitsi. Zerbitzuetara jo duten emakumeen ehunekoa aurreko ikasturtekoaren antzekoa da (% 69 emakume hitzordu bakarrera joan dira, eta % 31 hitzordu batera baino gehiagotara). Horrek etxearen dinamika finkatzen du; izan ere, zerbitzu ugari eskaintzen zaizkie emakumeei, haien jarraipena egiten da eta sarean lan egiten da.

Erabiltzaileen artean apur bat jaitsi da Emakumeen Etxea elkarteko bazkideen ehunekoa (% 25etik % 24,22ra). Oraindik ere aldeak daude ikastaroetan parte hartzen dutenen eta zerbitzuen erabiltzaileen artean; lehenengoen artean % 45,27 bazkideak dira, eta bigarrenen artean % 11,99 baino ez dira bazkideak. Hala ere, aipatu behar da azken ehuneko horrek gora egin duela aurreko ekitaldiarekin alderatuz (% 6,5 izan zen).


Bazkideak:



Erabiltzaileen jatorriari dagokionez, datu orokorrak kontuan hartuta, Amerikatik etorritako erabiltzaileen ehunekoak bere horretan jarraitzen du, eta Espainiako estatutik etorritakoen ehunekoak zertxobait behera egin du.

Europatik eta Afrikatik (gehienak Marokotik) etorritako emakumeen ehunekoek bere horretan jarraitzen dute, eta Asiatik etorritakoen ehunekoak behera egin du. Amerika kontinentetik datozenen artean, % 21,07 Honduraskoak dira, % 20,36 Nikaraguakoak, % 18,21 Kolonbiakoak, eta gainerakoak Bolivia, Ekuador, Mexiko, Argentina eta Perukoak dira.

Erabiltzaileen jatorria:



Zerbitzuen erabiltzaileen eta ikastaroetan parte hartzen dutenen arteko alderaketa egitean, aldagai horretan dago oraindik ere alderik handiena. Zerbitzuen erabiltzaileen artean, % 60 Amerikatik dator; ehuneko hori 5 puntu igo da, aurreko ikasturteko ehunekoarekin alderatuta. Ikastaroetan parte hartu dutenen artean, aldiz, % 22,02 baino ez da etorri Ameriketatik (egia da, hala ere, ehuneko hori pixka bat igo dela aurreko ikasturtearekin alderatuta), eta % 69 espainiar Estatutik etorri da.

OHARRA: Guztira, 976 emakumek osatutako unibertsoa izan dugu aztergai. Hala ere, horien guztien fitxa osoak falta ditugunez, alderdi bakoitzerako eskura dugun informazioa aztertu dugu. Horregatik, emakumeen guztizkoa alda daiteke alderdi batetik bestera.

Hurrengo taulan jaso dugu Donostiako Udalak Emakumeen Etxeari egiten dion ekarpen ekonomikoa.

1. Emakumeen Etxea Elkartearekin hitzarmena:

Hitzarmena Emakumeen Etxea espazioa dinamizatzeko arratsaldetan 46.000,00

2. Pertsonala:

Udal langileak, goizetan espazioa dinamizatzen dutenak 63.921,87

3. Ikastaroak, ahalduntze taldeak eta zerbitzuak

Autodefentsa ikastaroak	4.448,00
Indarkeriarik gabeko Bizitzaren aldeko Emakumeak	9.460,00
Kultura aniztasuneko taldea	7.077,60
Literatura taldeak	4.160,00
Etxeko langileen aholkularitza zerbitzua	4.950,00
Lege aholkularitza	4.950,00
Aholkularitza juridiko eta gizarte esku-hartzea	4.950,00
Biluzik Mundura: sexualitate eta genero aholkularitza	7.425,00
Norbanakoaren jabekuntzarako gunea	7.480,00
Gizarte aholkularitza	3.025,00
“Iguálate” ikasketak homologatzeko zerbitzua	7.425,00
Aholkularitza laguntza taldea	4.235,00
Aniztasun funtzionala duten emakumeen taldea	9.900,00
Neska gazteentzako jabekuntza gunea	4.965,00
Xilografia ikastaroa	1.650,00
Perreo feminista ikastaroa	528,00
Bizikleten mekanikaren ikastaroa eta bizikleta irteera	716,00
Magma Mia bakarrikzeta	715,00
Gure Hots dokumentalaren emanaldia eta solasaldia	363,00

4. Eraikinaren mantenua eta mobiliarioa

Gastu korrontea (telefonoa, garbiketa, fotokopiak, argindarra, komunitatea, instalazioen mantenua, konponketa txikiak)	43.541,90
Obrak: leihoak, deshumidifikatzaileak, manparak	13.535,28

5. Komunikazioa


Argazkiak eta bideoa	4.137,40
Egitarrak: diseinua, maketazioa eta inprenta	4.246,60
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua, maketazioa eta inprenta	4.955,56
Udarako liburuen gomendioen diseinua eta maketazioa	544,50

GUZTIRA:

269.305,71 €

Ekarpen honez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak Emakumeen Etxea Elkarteari 38.500 euroko diru laguntza ematen dio, eta horri esker egiten dira emakumeen zine ikustaldiak Antzoki Zaharrean, ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak, hitzaldiak, batukada, difusio kanpaina eta abar.



A sepia-toned photograph of a woman with short, light-colored hair, wearing a headband and a light-colored cardigan over a patterned shirt. She is focused on mending a fishing net. Her right hand holds a small needle and thread, while her left hand holds a section of the net. The background is a blurred, textured surface, possibly a body of water or a large net. The word "Zerbitzuak" is written in a stylized, dark font across the bottom of the image.

Zerbitzuak

Etxeko langileentzako aholkularitza

Honako gai hauen inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...

Egileak: Ana Lopez eta Juana Aranguren

Astelehenetan, 16:30-18:30. Hitzorduekin.

Telefono bidez eta presentzialki 124 emakume artatu dira; horietatik 40 kanpokoan erregimenean zeuden, 60 barnekoen erregimenean eta 24 enplegatzailleak ziren.

Emakume enplegatuetatik bi Euskal Herrikoak ziren eta 98 atzerritarrek. Jatorrizko herrialdeei dagokienez, gehienak Honduras eta Nikaraguakoak ziren, gainerakoak Kolonbia, Mexiko, Venezuela, Nigeria, Bolivia, Errumania, Ekuador eta Errusiakoak.

Kontsultak honakoak izan dira batez ere: atzera egitea eta/edo kaleratzea, likidazio eta kitapenak berrikustea, eta kasu batzuetan baita horiek idazten laguntzea ere. Azkenik, Adiskidetze-orriak idaztea.

Aholkularitza juridikoa eta gizarte eskuhartzea

Honako tramite hauek egiteko laguntza: espetxe eta zigor zuzenbidea; atzerritartasuna; lan-zuzenbidea; genero indarkeria; hirugarren adina (erretiroa, pentsioa, alarguntasuna...).

Egilea: Arrats Elkartea

Asteazkenetan, 16:00 - 18:00. Hitzorduekin.

Orotara 141 emakume artatu dira. Jorratutako gaien ugaritasuna nabarmendu behar da. Eremu nagusia familia-zuzenbidea izan da; kasu horietako askotan, ofiziozko txandan abokatu-laguntza eskatzen lagundu da. Atzerritartasunari dagokionez, kasu gehienak bizileku-baimenarekin eta hasierako lanarekin lotutakoak izan dira.

Zuzenbide zibilar buruzko gaiei dagokienez, askotarikoak eta ez oso ohikoak izan dira, eta jabetza horizontaleko gaiak nabarmendu behar dira. Lan-zuzenbideari dagokionez, hainbat gai jorratu dira, hala nola erretiroak, lan-errotze prozedura, lan-eskubideak/ osasunerako eskubideak, nominak eta pentsioak eta Sovia.

Zuzenbide penalaren inguruko kontsultak oso urriak izan dira.

Gizarte aholkularitza

Askotariko informazioa eta aholkularitza: gizarte laguntzak, etxebizitza, formakuntza edota enplegua.

Egilea: Rosa Ugalde Urbistondo

Asteartean, 16:00 - 18:00. Hitzorduarekin.

Aholkularitza, laguntza eta orientazio funtzioak bete ditu Gizarte Laguntzako Programak. Halaber, sareko lana egin da Etxeko beste zerbitzu batzuekin eta kanpoko erakundeekin, hala nola Caritasekin edo Gurutze Gorriarekin, muturreko kasuetan.

Sarritan artatu dira oso egoera zailetan bizi diren emakumeak: baliabide falta, lanik eza, osasun mentaleko arazoak edo indarkeria matxistako egoerak.

Aipatzekoa da egoera administratibo irregularrean bizi izan dituzten baldintza gogorrak; askok galdu egin dituzte ezkutuko ekonomiako lanak, inolako eskubiderik gabe, eta lana aurkitzea ere kostatzen ari zaie, nahiz eta azken hilabeteetan egoera nahiko normalizatu den.

Zuzenean artatutako emakumeak: 115

Jarraipena eta laguntza: 265

Koordinazioa: 45

Biluzik mundura

Sexualitatearen inguruko informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea: Lahia 3.0 sexologia elkarte

Astelehenetan, 17:00-20:00. Hitzorduarekin.

2021eko irailetik 2022ko ekainera, guztira 133 kontsulta jaso dira. Horien % 43,60 presentzialki izan dira, %48,13 Instagram bitartez eta % 8,27 posta elektronikoko bitartez. Zerbitzura jo duten pertsona gehienak emakumeak izan dira, 105 (% 78,95); gizonak, aldiz; 24 (% 18,05a). Bitarra ez den pertsona bati eta hiru erakunderi ere eman zaie arreta.

Zerbitzu presentziala:

Zerbitzura etorri diren pertsona gehienak (% 91,38) emakumeak izan dira. 6,89 % gizonak izan dira eta ez bitarra den pertsona bat ere gerturatu da. Etorri diren pertsonen adin tarte zabala izan da, 13 urtetatik 29 urtetara.

Presentzialki jasotako kontsultak gai ezberdinen ingurukoak izan dira, horiek 6 kategoriatan sailkatu ditugu: hilekoa, kontaktua, edertasun ereduak, indarkeria matxista, LGTBQ+ eta sexualitatea.

Instagram:

2021eko irailetik 2022ko ekainera, Instagram bitartez 64 kontsulta jaso dira guztira. Horietatik 42 (%65,62) emakumeek eginak dira, 12 (%18,75) gizonenak, bat ez bitarra, hiru erakundeenak, eta 6 pertsonak ez dute inolako informaziorik eman.

"Parekatu"

Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko aholkularitza.

Egilea: Bidez Bide

Ostegunetan, 10:00-13:00. Hitzorduarekin.

Horra artatutako pertsona kopurua: 398 emakume eta 13 pertsona ez bitar. Horietatik 322 Latinoamerikako herrialdeetatik datoz (Nikaragua, Honduras, Venezuela, Kolonbia, Brasil), gainerako 92ak Europatik (Espainia, Errumania, Bielorrusia eta Ukraina), Afrikatik (Aljeria, Maroko, Nigeria eta Senegal) eta Asiatik (Afganistan, Iran, Mongolia, Nepal eta Vietnam).

Covid 19ren testuinguruan sortutako homologazio-prozesurako zerbitzu berriekin jarraitu da, haren ondoriozko inpaktuak arintzen saiatzeko:

1.- Eten digitala: *administrazioarekin egin beharreko izapide guztiak telematikoki egin behar dira, eta horrek zaildu egiten du artatzen ditugun erabiltzaileen % 78ek izapide horiek eskuratzea. Horregatik, laguntza-orduak luzatu ditugu, eta ordu gehiago eman ditugu emakumeak trebatzen, izapide horiei aurre egiteko baliabideak emango dizkieten tailer txikiak eginez.*

2.- Arreta handitzea, IKTak erabiliz: *erabiltzaileen % 80ek lanorduak murriztu dituzte, eta horrek zaurgarritasun handiagoa eragin die. Denbora librea enplegua bilatzeko erabili behar izan dute. IKTen bidezko arreta zabaltzeak erraztu egiten du informazioa ahalik eta emakume gehienengana iristea.*

3.- Osasun arloko emakume profesionalen osatutako bi taldeen jarraipena eta laguntza: *erizainen taldea (12 emakume) eta medikuen taldea (16 emakume), beste ibilbide batzuk dituzten emakumeak 22 izan dira.*

4.- Zaintzeko ikasi kanpaina: *Emakumeek profesionaltasun-ziurtagiri bat aurkezteko duten beharraren ondorio izan da (mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan). Kontrataziorako ezinbesteko baldintza da, bereziki, Aldundiak kudeatzen duen Laguntza Pertsonalerako Laguntza Ekonomikoaren (LPPE) baldintzapean badago.*

Gipuzkoan 893 emakumek dute ziurtagiria lortzeko beharra, Donostian 218k. Kanpaina horren bidez, Donostiako Emakumeen Etxean, 196 zenbakian, arreta eman da.

Bestalde, azpimarratu behar da bideratzeak % 47 igo direla Lanbide eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak bezalako erakunde publikoetatik.

121 emakume bideratu ditugu etxeko ahalduentze zerbitzu edo taldeetara, esku-hartze integrala eskaintzeko.

Lege aholkularitza

Familia zuzenbidea. Lanerako zuzenbidea.
Atzerriartasuna. Genero indarkeria.

Egilea: Emakume Bananduen Elkarte

Asteazkenetan, 19:00-21:00. Hitzorduekin.

183 emakume artatu dira; horietatik 40 indarkeria matxistaren eta/edo sexu-erasoen biktimak izan dira. Aurreko urteetan bezala, banantzeari edo dibortzioari buruzko kontsultetan ikusi da hainbat tratatu txar kasuak direla, nahiz eta emakume batzuek tratatu nahi ez duten edo ez duten beren bikotekideen aurkako ekintza penalik hasi nahi izan.

Atzerriartasunari buruzko kontsultek gora egiten jarraitzen dute. Beste kontsulta mota batzuk honako gai hauei buruzkoak izan dira: irabazpidezko likidazioak, banantzeak/dibortzioak, seme-alaba adingabeen zaintza eta babespea, elikadura-pentsioak ez ordaintzea, bisita-erregimeneko ez-betetzeak, jaraunspenak, lana (kaleratzeak eta erretiroa), errentamenduak, aitaltasuna (aitorpenak edo aurkaratzeak).

Emakume askori hitzorduak eskatu zaizkie, doako laguntza juridikorako, atzerriartasunerako edo beste edozein erakunde publikorako; izan ere, pandemiatik izapide asko telematikoki egiten dira eta emakume askok zailtasunak dituzte Interneten sartzeko.

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Internetarako sarbidea duten ordenagailuak erabiltzeko doako zerbitzua.

Asteazkenetan, 10:00 - 21:00.
Hitzordurik gabe.

Laguntza psikologikoa

Metodo interaktibo bat erabiliz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak aktibatzen saiatu gara. Helburua prebentzioa, larrialdietan eustea, aholkularitza eta ahalduntzea dira.

Egilea: Maite Santamaría

Asteazkenetan, 10:00-14:00. Hitzorduekin.

Emandako arreta kopurua: 174

Asko erakundearen arreta psikologikoko zirkuitua egin ondoren etortzen dira; beraz, horrek agerian uzten du oraindik ere laguntza behar dutela ondo jartzeko.

Krisi ekonomikoak eta horren ondoriozko prekaritateak eragin handia du batzuetan indarkeria inplizitu eta esplizituko egoerak jasan behar izatean. Era berean, gizarte-eta familia-sarerik ez duten emakumeak ere iristen dira. Zuzenean bideratzen dira BLZtik, Gizarte Zerbitzuetatik, Osakidetzatik, Lanbidetik eta Caritasetik, edo ahoz ahokoaren bidez etortzen dira.

Arreta eta bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera.
Emakumeen Etxeko bertako baliabideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea: Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 21:00.
Hitzordurik gabe.



Elkarguneak

Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak

